

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Onestea familia harreran eta familia harreraren osteko jarraipenean laguntzeko aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoen 2020rako deialdia

Arabako Foru Aldundia da lurralde historiko honetan adingabeen babesaren ardura duen erakunde publikoa, eta, bereziki, berak bete behar ditu horrelako erakundeei dagozkien eginkizunak, hain zuzen ere 21/1987 Legeak (azaroaren 11koa, adopzio gaietan Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zenbait artikulua aldatzen dituena), 1/1996 Lege Organikoak (urtarrilaren 15ekoa, adingabeen babes juridikoarena, zeina aldatu baitzuen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak, haur eta nerabeen babes sistema aldatzen duenak) eta 3/2005 Legeak (otsailaren 18koa, haur eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa) esleitzen dizkienak.

Ekainaren 16ko 21/2020 Foru Dekretuaren bidez, oinarri orokorrak onetsi dira, familia harrean eta familia harrera amaitu ondorengo bizikidetzan laguntzeko aparteko gastuetarako Gizarte Politiken Sailak eta bere menpeko erakunde autonomo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituzten laguntza ekonomikoak arautzen dituztenak. Urteroko deialdi publikorako utzi zen diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak nahiz beste kontu batzuk, hala nola kontzeptu horien gehieneko zenbatekoak, zehaztea.

Prestazio ekonomiko horiek hasieratik bertatik oinarritzko premisa honetatik abiatuta taxutu ziren: familia harrera lehenetsi behar da zentroetako harreraren gaintik, betiere adingabearen interes gorenari komeni bazaio, eta etxean adingabe bat hartzen duenari ez dio kalte ekonomikorik ekarri behar babes altruista hori emateak, are gutxiago Administrazio Publikoak berak daukanean haren tutoretza edo behintzat haren zaintza.

Indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, familia harrerarako egokiak diren familiek, alde batetik, bizibide egonkorak eta nahikoak eduki behar dituzte, baina, beste aldetik, beharrezkoa da familia horiek diru konpentsazio bat eta ezartzen diren beste laguntza batzuk jasotzeko eskubidea ere izatea.

Ikuspegi horrekin, Arabako Foru Aldundiak, duela urte askotatik, bere erakunde autonomo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez, familia harrerako programa bat garatzen du, zeinean babesgabezia larrian dauden adingabeen zaintza ematen baitzaie pertsona edo familiei, denbora jakin batez haiek zaindu, mantendu eta hezteaz eta giro afektibo batean osoko hezkuntza emateaz arduratu daitezzen; eta harrera osteko programa ere badauka, adin nagusitasunera heldu eta gerorako.

Programa horien bidez adingabeak edo gazteak euren familia naturalaren ordezkotako beste familia batean bizi daitezke behar beste denboran. Programa honetako haurrek izaten dituzten arazoak direla eta, beharrezkoa da familiek programan parte hartzea –guztiaren gaintik, haien zerbitzu bokazioa eta elkartasuna nabarmentzen dira– eta, bestetik, Foru Administrazioak laguntza egokiak ematea familia horiei, horien artean konpentsazio ekonomiko bat dagoela, ezinbestean.

Kontuan izanik familia harreragileek bere gain hartzen dituzten eginkizunek, beste gauza askoren artean, gastu ekonomikoak eragiten dizkietela, adingabeen beharrezkoak eta zenbait egoeratan sortzen diren aparteko gastuak ordaindu behar dituztelako, eta kontuan harturik kostu ekonomiko horiek ez dutela eragin negatiborik izan behar, ez harrera egiteko edo ez egiteko erabakian, ez adingabearen artapenean, eta saihestu beharreko arazoa dela pertsona edo familia harreragileek euren egoera ekonomikoan gaitasun handiago izatea adingabe bat edo batzuk

hartzearen ondorioz, horregatik guztiagatik, bidezkoa da familia harreraren eta familia harreraren osteko jarraipenean laguntzeko aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoen urteroko deialdia onartzea 2020ko ekitaldirako. Hortaz, laguntzen helburua kontuan izanik, eta oinarri arautzaileetan esplizituki esaten ez bada ere, haietatik ondorioztatzen da laguntza hauek emateko jarraitu beharreko emakida prozedura lehia libre dela.

Horregatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren lehen-dakariak proposaturik, eta agiri honek daraman dataren egunean egindako bilkuran kontseilu honek gaia aztertu eta gero, honako erabaki hau hartu da:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Familia harreraren eta familia harreraren osteko jarraipenean laguntzeko aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoen 2020ko ekitaldirako deialdi publikoa onartzea, eranskinean ezarritako oinarrien arabera.

Bigarrena. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2020ko aurrekontuko "Familia harrerarako aparteko laguntzak" gastu partidaren kontura ordainduko dira, laurogeita hamaika mila eta zortziehun euroko zenbatekoaz (91.800,00 euro).

Hirugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25.1, 8.1 eta 46.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik. Horren aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabete epea izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ohartarazten da aurkeztutako berraztertze errekurtsuaren esanbidezko ebazpena eman arte edo hori ustez ezetsi arte ezingo dela administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri; hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 10a

Gizarte Politikaren Saileko diputatua eta GOFeren Administrazio Kontseiluaren presidentea
EMILIO SOLA BALLOJERA

GOFeren Administrazio Kontseiluko idazkaria
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS

Familia harreraren eta familia harreraren osteko jarraipenean laguntzeko aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoen urteko deialdia**2020ko ekitaldia**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2020ko uztailaren 2an egindako bilkuran, erabaki du laguntza deialdi hau onestea eta argitaratzea. Hona hemen hura arautuko duten.

OINARRIAK**Lehenengoa. Xedea**

Zabaltzen da familia harreraren eta familia harreraren osteko jarraipenean laguntzeko aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoen 2020ko ekitaldirako deialdi publikoa, ekainaren 16ko 21/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen arabera.

Bigarrena. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta gastuak

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak 2020ko ekitaldian kontzeptu hauengatik egindakoak dira:

- a) Betaurrekoak, lentillak.
- b) Odontologia.
- c) Eskola laguntza.
- d) Familia laguntza.
- e) Etxeko laguntza.
- f) Tratamendu medikoak.
- g) Jolas jarduera hezigarriak.
- h) Dokumentazio izapideak.
- i) Eskola matrikula.

j) Harrerapeko adingabea zaindu eta artatzearekin zerikusia duen beste edozein, edo adin nagusitasunera iritsitakoan familia harreragilearekin bizitzen jarraitzen duten gazteei dagozkienak, salbuespenez irizten bazaio behar bezala frogatuta dagoela beharrezana; betiere, gastua ez badu bere gain hartzen beste edozein sistema publikok.

2. Aurreko 1. puntuko b) apartatuan sartzan diren ortodontzia gastuen kasuan, haien izaera dela eta, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak 5.2.b) oinarrian ezarritakoaren arabera dagokion zenbateko osoa hartuko du. Dirulaguntzaren ordainketa hainbat ekitalditan egin beharra gerta daiteke, eta, hala, gastua frogatu ahala egingo da ordainketa, dagokion ekitaldiko partiden kontura. Geroagoko ekitaldirik egonez gero, haiei dagozkien zenbatekoak ordaintzeko, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da.

Hirugarrena. Pertsona onuradunak. Baldintza orokorrak eta bereziak

1. Laguntza hauen onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoan familia harreraren bat formalizatu duten pertsonak, bai eta familia harreraren bidez etxean eduki duten adingabea adin nagusitasunera iritsitakoan ere beraiekin jarraitzen dutenak, ekainaren 16ko 21/2020 Foru Dekretuan jasotzen diren oinarri arautzaileen 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik .

2. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuengatik laguntza jaso ahal izateko bete behar diren baldintza berariazkoen artean, honako hauek ezartzen dira:

- a) Betaurrekoak, lentillak: haien beharra ziurtatzen duen txosten medikoa.
- b) Odontologia: txosten medikoa, horren beharrezana dagoela eta gastua osasun zerbitzuek estaltzen ez dutela ziurtatzeko.

c) Eskola laguntza: eskolako txosten teknikoa, laguntza horren beharrezana egiaztatzeko.

d) Familia laguntza, 14 urtetik beherakoentzat, salbu behar bereziak dituzten haurrak. Harrera familiak (kide biek, hala denean), familia harrerarako egokitzapen balorazioa egin ondoren sortutako lan arloko arrazoiak direla-eta, harrerapeko adingabeen gainbegiratze beharrezanak bete ezin dituenean, laguntza hori artatzeko erabili delako justifikazioa.

Laguntza eskatu ahal izango da beste kasu hauetan ere:

– Ezusteko arrazoiak familia harreragileari eragozten badiote harrerapeko adingabeari arreta ematea.

– Familia zabaleko harreraren kasuetan, osasun arazoak agertzen badira harrera formalizatu baino lehen.

e) Etxeko laguntza. Etxean karga handi samarrak izatea. Beharrezan hori teknikoki baloratuko da hauen arabera:

– harreraren dauden adingabeen kopurua (bi baino gehiago).

– haien adina (14 urte baino gutxiago, beharrezan bereziak izan ezik).

– familia harreragilearen adina.

f) Osasun sistema publikoak bere kontu hartzen ez dituen medikuntza tratamenduak, haien beharra bermatzen duten mediku txostena eta osasun publikoko zerbitzuek ez bere gain hartzea gastua.

g) Jolas jarduera hezigarriak, beharrezana teknikoki baloratuko da hauen arabera:

– Adingabeak gizarte eta harremanetarako gaitasunen defizita izatea, eta mediku edo psikologo diagnostiko batek bermatzea hori.

– Familiaren egoera ekonomikoa, ikuskapen teknikoak emango du haren berri.

– Familia egoera eragozpena izatea laguntasunerako eta era horretako jarduerak sustatzeko.

h) Dokumentazio izapideak, Arabako Lurralde Historikotik kanpora joan beharra badakarte.

Laugarrena. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntza hauek lehia librean emango dira; funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira, baldin eta eskaerak deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Bosgarrena. Laguntzaren zenbatekoa zehaztea

1. Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2020ko aurrekontuko "Familia harrerarako aparteko laguntzak" gastu partidaren kontura ordainduko dira, laurogeita hamaika mila eta zortziehun euroko zenbatekoaz (91.800,00 euro).

2. Onartuko den laguntza ekonomikoaren gehieneko kopurua honela ezarriko da:

a) Betaurrekoak, lentillak: Eskaera guztiak 165 euroko gehieneko zenbatekoaz baietsiko dira.

b) Odontologia: Eskaera guztiak gehieneko zenbateko hauekin baietsiko dira:

Endodontziak: 150 euro gehienez.

– Erauzketak: 80 euro gehienez.

– Betetzeak: 60 euro gehienez.

– Erradiografiak: 50 euro gehienez.

– Ortodontzia: 3.000 euro tratamendu osorako.

c) Eskola laguntza: txosten profesionalean ageri den beharrianaren arabera (txostena ikasurtean zehar berrikusi ahal izango da), eta gehienez 1.200 euro urteko, gehienezko zenbatekoak hauek direla:

- Lehen Hezkuntza: 13 euro orduko.
- Bigarren Hezkuntza: 19 euro orduko.
- Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondokoa: 20 euro orduko.

d) Familia laguntza: gehienez ere ekitaldirako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldata emango da, lanaldiko lanorduen araberako proportzioan. Diruz lagundutako lanorduetatik Gizarte Segurantzaren kotizazioari dagokion zatia gehituko da aplika daitekeen araudiaren arabera. Guztirako dirulaguntza, urteko eta familia harreragile bakoitzeko, ezin daiteke izan 7.000 euro baino gehiago.

e) Etxeko laguntza: gehienez ere ekitaldirako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldata emango da, lanaldiko lanorduen araberako proportzioan. Diruz lagundutako lanorduetatik Gizarte Segurantzaren kotizazioari dagokion zatia gehituko da aplika daitekeen araudiaren arabera, gehienez ere 4.000 euro urteko eta familia harreragile bakoitzeko.

f) Osasun sistema publikoak bere gain hartzen ez dituen medikuntza tratamenduak: 3.000 euro tratamenduko.

g) Jolas jarduera hezigarriak, jardueraren ehuneko 50, gehienez ere urtean 800 euro.

h) Dokumentazio izapideak:

- Egin beharreko izapidearen beraren gastu guztiak.
- Joan-etorriak: adingabearen eta laguntzaile batenak.
- Ahal dela, garraio publikoa: frogatutakoa.
- Norberaren ibilgailua: 0,29 euro/km, autobideko bidesariak eta aparkalekua.
- Bidaia-sariak: adingabearen eta laguntzaile batenak.
- Ostatatzea: Gehienez 80 euro/gau (3 izar gehienez) pertsonako.
- Bazkaria: Gehienez 21 euro/pertsona.
- Afaria: Gehienez 21 euro/pertsona.
- Gosaria: 3 euro/pertsona.

i) Beste batzuk: behar bezalako beharrianaren eta beharrian horren aurrekontuaren arabera.

Seigarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Adin nagusitasunera heltzean familia harreran egon den gaztearekin bizitzen jarraitzen duen harreragileak edo harreragile ohiak eskatzen duenean, orduan hasiko da araudi honen xede diren laguntzak emateko prozedura. Prozedura hori deialdi honekin batera I. eranskin gisa doan eskabide eredian formalizatuko da.

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Aparteko gastuaren beharra frogatzen duten agiriak, dagokien profesionalak eginak. "Familia laguntzako" kasuak salbuesten dira. Horietan, familia harreragileak frogatu beharko ditu beharrezkoak eta dirulaguntzaren eskaeraren xedea den ordu kopurua.

b) Behar den arretaren kostu osoari buruzko aurrekontua. Aurrekontu horren barruan sartu beharko dira bai esku-hartze profesionalaren gastuak bai esku-hartzerako edo tratamendurako –halakorik izanez gero– beharrezkoak diren material edo gailuen gastuak, eta, horiez gainera, administrazio kontzeptu guztiak eta tratamenduaren edo esku-hartzearen jarraipenari dagozkion kontzeptu guztiak.

c) Esku-hartze bakoitzeko gastu osoa 1.200 eurotik gorakoa bada, gutxienez bi aurrekontu aurkeztu beharko dira. Aurkeztutako eskaintzak azaldu beharko dira. Horietako bat aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean. Alde batera utzi ahal izango da betebeharrak hori neskak, mutilak edo gazteak hainbat diagnostiko jasatea kaltegarria edo desegokia izan badaiteke, lehenagoko esku-hartzeen ondoriozko harremanen bat badago, mugikortasun geografikoengatik mugarik badago, edo adingabe edo gaztearentzat desegokitzat jotzen den beste egoeraren bat gertatzen bada. Egoera hori alegatu egin beharko da eskabidean, eta aldeko irizpena lortu behar du proposamen teknikoan, eta baiezkoa ematen duen ebazpenean onartu.

3. Diruz lagundutako kontzeptuak, hainbat ekitaldi herrenkadan hartzen badituzte gauzatzeko orduan eta esleitzeko ebazpena haiei buruzkoa izan bada, ez da beharko 1. puntuan aipatzen den eskabidea eredia aurkeztea baizik, hala dela adieraziz.

4. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizios eskatuko dio Foru Ogasunari onuradunak bere zerga betebeharrak egunean dituelako egiaztagiria, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 800 eurotik beherakoa bada eta, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (ondoren 58/2004 Foru Dekretuak aldatua) ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatu beharretik salbuetsita badago. Onuraduna aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera. Onuradunak zergak beste probintzia edo autonomia erkidego batean ordaintzen baditu, egoitzaren egiaztagiria, Ogasunak emana, aurkeztu beharko du.

5. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizios eskatuko dio Gizarte Segurantzari onuradunak bere zerga betebeharrak egunean dituelako egiaztagiria, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 3.000 eurotik beherakoa bada eta, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (ondoren 58/2004 Foru Dekretuak aldatua) ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatu beharretik salbuetsita badago. Onuraduna aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera.

6. Eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2020ko abenduaren 15ean amaituko da.

Zazpigarrena. Ordaintzeko modua

1. Arau orokor gisa, aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoak beranduenez hilabeteko epean ordainduko zaizkio eskatzaileari, gastua justifikatzen eta ordainketa frogatzen den egunetik aurrera.

2. Laguntzaren zenbatekoa aurreratzerik ere izango da tratamendu batzuetan, tratamendua hasteko beharrezkoa bada, eskaeran eta proposamen teknikoan hori aipatzen bada eta baiezkoa ematen duen ebazpenean hala zehazten bada. Ordainketa hori gehienez hilabete bateko epean egingo da laguntza ematen den egunetik aurrera.

Zortzigarrena. Gastuen eta ordainketen justifikazioa

1. Arau orokor gisa, eskatzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Adingabeen eta Familiaren Arloan aurkeztu beharko du adingabeak edo gazteak behar izan duen laguntza eman duen profesionalak edo erakunde espezializatuak egindako faktura, eman denetik bi hileko epean eta, betiere, 2020ko abenduaren 31 baino lehen. Ordainketa egin dela, berriz, ordainagiriaren, bankuko jatorrizko agiriaren, edo faktura eman duen enpresaren sinadura eta zigilua daukan fakturaren bidez frogatuko da, eta 2021eko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko da.

Iruzuraren Kontra Borrokatzeko Ekintzei buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legeak (BOE, 2012ko urriaren 30ekoa) 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, ezingo dira eskudirutan ordaindu 2020ko ekitaldirako indarrean dagoen araudian zehaztutako balio bereko edo handiagoko edo atzerriko

monetan haren kontrabalioa duten eragiketak. Ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa kalkulatzeko, batu egingo dira egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

2. Familia laguntzako edo etxeko laguntzako laguntzak badira, aurreko puntuan jasotakoaz gainera, dagokion hilabeteko kuota Gizarte Segurantzari ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da, betiere 2021eko otsailaren 7a baino lehenago.

3. Tratamendua hasi baino lehenago ordaindu behar bada, eskatzaileak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adingabeen eta Familiaren Arloaren aurrean, tratamendu hori hasi dela frogatu beharko du adingabeak edo gazteak behar duen arreta eman duen profesionalak edo entitate espezializatuak egindako fakturaren bidez, gehienez ere hilabeteko epean, laguntza benetan ordaintzen denetik aurrera, eta betiere 2020ko abenduaren 31 baino lehen. Ordainketa egin dela, berriz, ordainagiriaren, bankuko jatorrizko agiriaren, edo faktura eman duen enpresaren sinadura eta zigilua daukan fakturaren bidez frogatuko da, eta betiere 2021eko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko da.

Urriaren 29ko 7/2012 Legeak (2012ko urriaren 30ean argitaratu zen EAOn), iruzurraren kontrako borrokari buruzkoak, 7. artikuluan dio ez direla onartuko eragiketen ordainketak eskudirutan, baldin eta haien zenbatekoa edo atzerriko diruaren kontrabalioa indarrean den araudian muga gisa ezarritakoaren berdina edo handiagoa bada. Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

4. Gastua frogatzeko, jatorrizko fakturak edo benetako agiriak baliatuko dira. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak jatorrizkoekin batera aurkezten diren fotokopiak konpultsatu ahal izango ditu.

Bederatzigarrena. Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean jasotzea

Baldin eta familia harreraren eta familia harreraren osteko jarraipenenean laguntzeko aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoen onuradunek beste laguntza publiko edo pribatu batzuk eskuratzen badituzte helburu bererako, horren berri eman beharko diote Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, eta jakinarazpen hori laguntza eskatzen duten une berean edo laguntza eskuratu eta hamar egun balioduneko epean egin beharko dute.

Hamargarrena. Eskaerak izapidetzea eta ebaztea

1. Adingabeen eta Familiaren Arloaren Zuzendariordetza Teknikoa da prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duen organoa. Organo horrek izapidetuko du ebazpen proposamena, behar bezala arrazoiturik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko Lehendakariaren aurrean, hark ebazpena eman dezan.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariak izango du eskumena deialdi honen babesean izapidetzen diren espedienteak ebazteko, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan.

Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek argitu behar ditu:

- Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.
- Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa eta laguntzaren helburua eta ordaintzeko era.
- Ebazpena emateko epea.

Eskaerak jasotzen direnetik hiru hilabete pasatu baino lehen eman behar da ebazpena, bai eta eskatzaileei jakinarazi ere. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espedientea etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari badagozkio.

Aurreko idatz zatian aipatzen den epealdian berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat hartuko da. Nolanahi ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman beharko du.

3. Ebazpenaren aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121etik 126ra arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Hamaikagarrena. Datu pertsonalen tratamendua

Indarrean dagoen datu pertsonalen babesari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak tratatuko ditu deialdi honek arautzen dituen laguntzak jasotzeko aurkezten diren eskaeretako datu pertsonalak eta baita laguntzak kudeatzeko, harremanak izateko eta komunikatzeko eta erakunde honi eskatutako edo erakunde honek emandako zerbitzuak kudeatzeko interesdunekin harremanetan jarrita eskuratzen diren guztiak ere. Datuak tratatu ahal izateko, interesdunak baimena eman behar du edo foru erakundeak bere berezko funtzioak betetzeko erabili behar ditu bere eskumenen esparruan, edo bi baldintza horiek bete behar dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei helaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuak ez zaizkio estatutik kanpoko inori helaraziko. Babes bereziko datuak dira.



Zure datuak ikusi, aldatu eta ezabatu ditzakezu, eta baita haien gaineko beste eskubide batzuk baliatu ere, honako webgune honetan duzun informazio osagarrian ikus dezakezun moduan: https://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=500000265916&pagename=IFBS%2FPage%2FIFBS_sinContenido, edo idazkia bidal dezakete, beren NANaren bidez identifikatu ostean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera, San Prudentzio kalea 30. 01005 Gasteiz, edo posta elektronikoa bidal diezaiokete datuen babeserako gure ordezkariari honako helbide honetara: dpd_ifbs@araba.eus.

Hamabigarrena. Azken klausula

Deialdi honen oinarriak bere osoan honako xedapen hauetan ezarritakoaren pean egongo dira: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzkoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra; 21/2020 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, onesten dituen familia harreraren eta familia harrera bukatu ondoko bizikidetzan laguntzeko aparteko gastuetarako laguntza ekonomikoak emateko oinarri arau orokorrak, eta oro har aplikatzeko diren guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 2a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p>  <p>Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<p style="text-align: center;">Familia Harrerako laguntza ekonomikoak egiteko eskaera</p> <p style="text-align: right; font-size: 24pt;">028</p> <hr style="border: 2px solid black;"/> 
--	---

Eskatzailearen datuak

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea)	Sexua	Nazionalitatea	Egoera zibila		
<input type="text"/>	G <input type="checkbox"/> E <input type="checkbox"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Helbidea (Kalea / Plaza)	Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
P.K.	Udalerría	Herria	Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat		
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Telefono finkoa	Sakelako telefonoa	Helbide elektronikoa			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			

ADIERAZTEN DU

-en familia harrera dela (izan dela) eta

harrera data honetan formalizatu da:

ETA ESKATZEN DU, beharrezkoak diren izapideak baino lehen, honako hauek ematea:

1. Familia harrerako aparteko laguntza ekonomikoa / familia harreraren ostean

Kontzeptua Zenbatekoa Epealdia

2. Familia harreraren osteko prestazio arrunta

Horretarako eranstean da (1. Kasua):

- Onartzea bermatzen duen justifikatzeko txostena
- Aurrekontua (1.200 eurotik gorakoa bada, bi aurrekontu)
- Laguntza ekonomikoaren beharrari buruzko justifikazioa, behar denean

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DITUT HONAKO HAUEK:

Eskabide honetan adierazitako datuak benetakoak direla.
Beharrezko egiaztapenak eta fitxategi publikoei kontsultak egiteko baimena ematen dudala, aitortutako datuak Administrazio Publiko eskudunen eskuetan daudenean bat datozela ziurtatzeko.
Badakidala aurrerantzean gerta daitezkeen eta 1. eskaera honi eragin diezaioketen aldaketen berri Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari ematera behartuta nagoela, 15 egutegi-egunen epean aldaketa gertatzen den egunetik hasita.

-(n), 20 -(e)ko -ren -(e)an

Eskatzailearen sinadura

Dokumentu hau sinatuz, goian sinatzen duenak adierazten du informatuta dagoela eta **DBLO Lege Oharrean** (012. eranskina) aipatutako baimena ematen duela, bere datu pertsonalak erabil ditzan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak.